

### BIDEO-PROIEKTU BATEN LABURPENA

#### 1 Irudiak lortzea

- Libre da bide publikoan (kaleak, plazak, parkeak) bideoak grabatzea edo argazkiak egitea, ez badago berariaz debekatuta.
- Kontuan izan ez dela trabarik egin behar.
- Pertsonak grabatzen badituzu edo argazkiak ateratzen badizkiezu, baimena eskatu behar zaie.

#### 2 Musika txertatzea

- Erabilera pertsonalerako bideoei gehitu dakieke musika. Egin duzun bideoa Interneten partekatu nahi baduzu, musikaren egile-eskubideen titularren baimena behar duzu.
- Baimena SGAEn edo SEDAn lor daiteke, hargatik eragotzi gabe musika-ekoizleen eta interpretatzaileen eskubideak, eskubide horiek ere ordaindu egin behar baitira.
- Era berean, zeure musika sor dezakezu edo Interneten dagoen musika ere erabil dezakezu, baimenduta badago Creative Commons lizentziarekin edo beste lizentzia batekin baliatzea. Irakurri arretaz erabilera-baldintzak.

#### 3 Irudiak gehitzea bideo baten edo animazio baten parte gisa


- Bideo baten zati gisa, hauek gaineratu ditzakezu:
  - a. Zuk egindako irudiak.
  - b. Beste pertsona batzuek egin edo ateratako irudiak.

#### Egilearen baimenarekin

- Zuzenean eska diezaiokezu baimena egileari edo eskubideen titularrari.

#### VEGAP kudeaketa-erakundeari ere eska diezaiokezu baimena.

- Interneteko irudiak kopiatu edo liburuen irudiak eskanea ditzakezu, eta ikastetxeko proiektu batean sartu, aipu-mugan oinarrituta, baldin eta aipu, analisi, iruzkin edo iritzi kritiko gisa txertatzen badituzu, irakaskuntza- edo ikerketa-xedearekin. Gogoratu: adierazi egilearen datuak eta iturria zure lanean.



#### Creative Commons lizentzia batekin

- Egiaztatu lizentziaren ikonoak, zer egin dezakezun jakiteko. Irudiaren ondoan adierazi behar dira Creative Commons lizentziaren sinboloa eta egilearen izena.
- Libre da babes-epea amaituta daukaten obrak erabiltzea.

#### 4 Mugimenduan dagoen irudi bat txertatzea norberaren lanaren parte gisa

- Bideo bat edo haren zati bat norberaren lan batean erabiltzeko, egilearen edo egileen baimena behar da.
- Baimena egileari edo egile-eskubideen titularrari eska dakioke (adibidez, ekoizleari), edo Creative Commons lizentzia batekin emana izan daiteke.
- Irakurri arretaz erabilera-baldintzak.

#### 5 Bideoak argitaratzea

- Bideo bat argitaratzen baduzu Interneten, egiaztatu baduzula baimena erabiltzen dituzun lan guztiak argitaratzeko, hala nola irudiak, musika eta bideoak, eta, behar izanez gero, baita bideoan agertzen diren pertsonena ere.

**Gogoratu egilearen datuak adierazi behar dituzula bideoan, baita erabiltzen dituzun irudi eta musikarenak ere.**

